

Alkate jaun/andre agurgarria:

“Euskadiko Udaletako Berrikuntzari buruzko Diagnostikoa” delakoaren emaitzak ezagutzeko gonbita egiten dizugu. EUDELe koordinatu du, Tokiko Gobernu bakoitzaren inplikazioarekin eta lankidetzarekin. Diagnostikoak Euskadiko udalen egoeraren “erradiografia” eskaintzen du, Euskadiko tokiko herri administrazioaren berrikuntzaren eta modernizazioaren esparruan.

Analisia auto-ebaluazioko galdera-sorta batean oinarritzen da; hain zuzen ere, galdera-sorta horiek udal bakoitzarekin egin dira, 2012ko maiatzetik irailera bitartean.

Ondorioen txosten orokorrearekin batera, udalerri bakoitzarentzako fitxa indibidual eta pertsonalizatua gehitu da. Dokumentu bi horiek posta elektronikoz bidaliko dira, udaletako kargu hautetsiei eta arduradun politiko eta teknikoei zuzendutako abenduaren 5eko (asteazkena) aurkezpen-saioaren ostean.

Bertan egon ahal izango duzula espero dugu.

Agur t’erdi,



EUDEL. > Informazio gehiago: Idazkaritza Teknikoa
Tel. **944231500** E-maila: **ailidazkaritzateknikoa@eudel.net**

Aurkezpen-saioa

Euskadiko Udaletako Berrikuntzari buruzko diagnostikoa
Emaitzei buruzko txostena

ASTEAZKENA, ABENDUAK 5
09:30etik 11:00etara Ercilla Aretoa. EUDEL, BILBAO

09:30ean - Irekiera: Tokiko Berrikuntza Agenda eta 2012ko Diagnostikoa, Tokiko Gobernuetan Berrikuntza kudeatzeko tresnak.

Carlos Totorika, Ermuko alkatea; eta Alfredo Etxeberria, Elgoibarko alkatea (EUDELeko Berrikuntzako ordezkari politikoak)

09:50ean – Diagnostikoaren metodologia eta ondorioak aurkeztea.

Enrique Sacanell (txostenaren prestaketaren arduraduna)

10:45etik 11:00etara. Galderen txanda.